



EUSKARAREN
BIZIBERRITZEA
BIARRITZEN

**POLITIKA
PUBLIKO AUSARTA
ETA EGITURATUA**

2015 - 2020





AITZINSOLASA..... P.4

LEHEN ZATIA :

BIARRITZEKO TESTUINGURU SOZIOLOGIA

I) EUSKARA BIARRITZEN..... P.6

A- Egoera kezagarria oraindik

B- Baikor izateko adierazleak

II) 20 URTEKO EKINTZA PUBLIKOA..... P.8

A- Aitzinamendu nabarmenak

B- Muga identifikatuak

BIGARREN ZATIA :

EUSKARA POLITIKAREN BOTERE HANDITzea

I) POLITIKA PUBLIKO AUSARTA..... P.12

A- Egituratzeko ondorioak

B- Baliabide indartuak

II) METODO ESPEZIFIKOA..... P.17

A- Legezko koadroa

B- Partaidetzako ekintza

HIRUGARREN ZATIA :

DESMARTXA PROSPEKTIBOA ETA IKUSMOLDE BERRIA

I) DESMARTXA ZORROTZA..... P.20

A- Ikusmolde orokorra

B- Etengabeko jarraipena

II) PARADIGMA ALDAKETA..... P.22

A- Nahikeria argia

B- Diskurtso berria, praktika berriak

KONKLUSIOA..... P.24





AITZINSOLASA

Milurtekoa bezain bat gaur egungoa izanki, euskarak mendeak zeharkatu ditu etengabe egokituz. Gaur, komunikazio hizkuntza modernoa da, jakintza hedatzaile. Baina luzaz apaldua izan den hizkuntza lanjerrean da, ez baita aski transmititzen eta erabiltzen. Munduan mintzatuak diren 6000 hizkuntzak kultur aniztasunaren osagai bat dira. Denen erronka da beraz honen biziberritzea.

Erronka estrategikoa

Azken mende erdian, elkarte mundua da euskararen defentsaz arduratu, luzaz bakarrik eta baliabide eskasez. 2004an, Euskal Herriko herriek, Hautetsien kontseiluak ordezkatu Euskal Herriko hautetsiek, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiak, Akitania Eskualdeko kontseiluak eta Barne Ministerioa, Kultur Ministerioa eta Hezkunde Nazionala elkartzen dituen ministerio arteko desmartxaren kariatara jarduten duen Estatuak gaur egun Euskararen Erakunde Publikoa (EEP) deitzen den interes publikoko erakunde bat osatu dute.

Biarritzen, herriko etxeak 1992an abiatu du euskararen aldeko lana. Politika publiko gisa 15 urte berantago egituratuko da, Hiria eta Euskararen Erakunde Publikoak 2007ko uztailean izenpetu eta, ondotik, 2011ko otsailean eta 2015eko uztailean berri hitzarmenarekin.

Honen eskumenetan sartzten diren hurbileko zerbitzuei begira, haren jarduerak herritarren eguneroko bizian duen aktibitatearen eraginaz, haren zilegitze bote-rez, haren ekintzak operadore publiko, pribatu edo elkarteengan izan dezakeen eredugarritasunaz, euskara zaindu eta sustatzea helburu duen hizkuntza politika baten arrakasta lortzeko operadore onena duda izpirik gabe herria da. Berreskuratze prozesu horretan duen zereginaz kontziente, herriko kontseilu berriak euskararen aldeko ekintza azkarrari jarraipen bat ematea erabaki du.

Nahikeria politiko azkarra

Horretarako, 2013ko abenduan burutu euskararen aldeko 20 urteko ekintzaren ondorioetan oinarritu da. Txosten horrek adierazten zuen nahiz eta testuinguru soziolinguistikoa aski zaila den Biarritzen, berreskuratze desmartxa bat abian ezarria izan zela; baina baliabide eskasez, emaitzak ez ziren nahikoak.

Herriko kontseiluak erabaki du beraz indar berri bat ematea euskararen aldeko politika publikoari, Biarritzeko berezitasunei egokitua. Horretarako politika publiko egituratu proiektu bat plantan ezarri eta honen obratzeko, zerbitzu administratibo bat sortu du. Ekimen horren hedadura eta izaera berritzailea kontutan harturik, Euskararen erakunde publikoak hiriarekin lankidetzat bat abiatu du, ekintza bate-ratu bat partaidetzan burutzeko.



LEHEN ZATIA

BIARRITZEKO TESTUINGURU SOZIOLINGUISTIKOA



I) EUSKARA BIARRITZEN

Nazioarte mailan fama handiarekin munduari irekia den itsas bazterreko hiria izanik ere, Biarritz Euskal Herrian errotua eta bertako hizkuntza eta kulturaz beztitua da.

Lehen ikusian, badirudi euskara ez dela agertzen hiriko paisaian, baina hurbilagotik ikusirik, berreskuratze keinuak ikusten ahal dira. Alta bada, hizkuntza bat ekosistema batean garatzen den bizidun baten gisara hartu behar da. Funtsezkoa da beraz ingurumen hori ongi ezagutzea, eta diagnostiko zehatz batena oinarritu behar du.

A- Egoera kezagarria oraindik

21. mende hastapen honetan, euskararen egoera arrenugarria da Biarritzen hainbat urtetan mendratua izan ondoren:

- Bi hizkuntzen arteko ospe desoreka azkarra agerian uzten duen **egoera diglosikoa**.
- **Hizkuntza gaitasun ahulak** BAB-ko bizilagunen %85,3 euskalduna ez izanki (2011).
- **Familiako transmisio murriztua**.
- **Erabilpen mugatua** hiriko eragile nagusien aldetik: administrazioa, saltegiak, ekitaldi handiak...
- **Gehien bat hizkuntza bakar bat erabiltzen duen hizkuntza ingurumena**: barne eta kanpo seinaleak.
- **Erabilpen sozial murriztua**: aukera eta prestigio eskasa.
- **Aurreiritzi eta sumindura iraunkorrak**.
- **Hizkuntza berreskuratzea laguntzen ez duen demografia** (biztanleen %40 60 urte baino gehiagokoa, %40 bigarren bizitegi).
- **Neholako onarpen ofizialik eta estatuturik ez duen hizkuntza**.
- **Irakaspen eskaintza ez aski hedatua**.



B- Baikor izateko adierazleak

Hiztun galtze prozesua alderantzikatu ez bada ere, seinale batzuk zenbaki hauek orekatzen dituzte eta, ondorioz, erronka horri eustea lotzen ahal dela frogatzen:

- Eskola elebidunetako ikasleen kopuruak etengabe gora doaz.
- Elkarte sarearen bizkortasun eta kohesio azkarra.
- Hizkuntza erabiltzeko eta hedatzeko lekuen garapena.
- Hiriak edo operadoreek eraman hizkuntza jarduera ugari.
- Interes eta eskaera sozial gero eta handiagoa bizilagunen partetik.
- Euskararen irudi sozialaren aldaketa.
- Gero eta hiztun gehiago belaunaldi berrietan.
- Hizkuntza modernoa, gaurkoa eta bateratua haren hiztun guzietan ulertzeko parada eskaintzeko.

EUSKARAREN ZENBAKIAK BIARRITZEN (2015)

IRAKASKUNTZA

- 434 ikasle ama eskolatik kolegiara
- ikasleen %22,5 euskaraz eskolatuak
- 2 eskoletatik bat hunkitua
- 32 haur Ohakoa haurtzandegian hartuak.

IKASKETA

- 150 heldu gau eskoletan
- 13 formakuntza talde
- 20 langile arte formakuntzan

MEDIATEKA

- 150 aktibitate/urte
- 20 hedapen leku
- 8 operadore hitzartu
- 30 haur/aste Uda Leku aisialdi zentroan
- 3.800 parte hartzaile, 100 benebolo Mintzalasaien

HIZKUNTZA AKTIBITATEAK

- 6.800 liburu (3200 heldu + 3600 haur)
- 1.070 Disko (1000 heldu + 70 haur)
- 305 DVD (150 heldu + 155 haur)



II) 20 URTEKO EKINTZA PUBLIKOA

A- Aitzinamendu nabarmenak

Hiriak 1991n abian ezarri eta 2007tik goiti egituratu ekintza publikoak emaitza argiak ekarri ditu.

- **Buxeta propioa euskararen alde:** Ibilmolde eta formakuntza propiorako buxeta esku artean ukanki, Biarritz Hiriko Euskara zerbitzua tokian bereko errealitateei erantzuten dieten proiektu pilotoak eta dispositibo berritzaileak obratzeko gai izan da.
- **Arrakasta lortu duten jarduera eta dispositiboak:** Eskola edo eskolaz kanpoko koadroan euskararen erabilpena sustatzeko jarduerak bai eta plantan ezarri informazio eta sentiberatze dispositiboak biziki arrakastatsua izan dira azken urte hauetan.
- **Lotura hertsia elkarte sarearekin:** Laguntza zeregina betez Euskara zerbitzuak fidantzia eta hurbiltasun harremana atxikitzen du hiriko elkar-teekin, hizkuntza politika baten arrakasta horrela segurtatuz.
- **Helburu nagusi identifikatuak:** 2011-2014 garairako gazteria eta aisialdiak lehentasun gisa finkatuz, Euskararen zerbitzuak euskarari buruzko ikuspegi modernoa, dinamikoa eta jostagarria defenditzen zuen.


Ekintza ederrak plantan ezarriak izan dira hainbat arlo arakatuz. Baina politika publiko bat egiten denaren, baina ere egiten ez denaren bitartez definitzen da. Horri ere interesatuz hobekuntza pistak marraz daitezke.

B- Muga identifikatuak

- **Elebkarreko hizkuntza ingurumena:** barne eta norabide seinaletikak, dokumentu administratiboek... pentsarazten dute administrazioa arrunt hetsia zaiola euskarari.
- **Elebitasun ez sistematikoa eta ez orekatua komunikazioan:** Irizpide, menturazko euskarri falta, paisaia numeriko kasik osoki frantsesez, kodifikatu beharreko prentsarekiko harremanak.
- **Ezagutza eta laguntza eskasa formakuntzan diren langileentzat:** Erabilpen planoa, identifikazioa, balioztatzea, erabilpen esparrua...
- **Trenkadaztea eta berreskuratze eza** denen partetik hizkuntza erronkaz, kontrako meuzak igorritz.
- **Giza, diru eta egitura mailako mugak** zeharkako ekintza eta hedadura-zko proiektuak plantan ezartzeko frenoak.



EUSKARAREN GILTZA-DATAK BIARRITZEN (2015)





Gauza anitz egina izan da azken urte hauetan, baina gauza anitz sortzen da oraindik Biarritzen euskararen presentziarik gabe.

Azken urteetako bilanak aterarazten du **kanpoan egin lanak emaitzak dituela, ahulezia nagusia euskararen barneko erabilpen eskasian gelditzen denean.**

Bestalde, mugak argiki identifikatuak dira: **tresna egokiak plantan ezarriak izan dira; hauek emaitza onekoak izateko baliabideak dira orain eskas.**

Horrek guziak kontrako seinaleak igortzen laguntzen du: azken 20 urteetan, gero eta haur eta heldu gehiago bultzatzen dira euskara ikastera, ondotik hizkuntza hau bizi sozialean ikusi, entzun eta praktikatzeko aukerarik eskaini gabe ondotik.



BIGARREN ZATIA

EUSKARA POLITIKAREN BOTERE HANDITZEA



I) POLITIKA PUBLIKO AUSARTA

Aitzinago deskribatu testuinguruan oinarrituz, herriko etxeak nahi izan dio botere handitze bati ekin 3. belaunaldiko euskara politika publiko bat plantan ezartzeko gisan.


Garai berezi eta garrantzitsu batean gertatu da, EEP-rekin izenpetu hitzarmenaren eguneratzea berritze politiko batekin batera etortzen baitzen. Lurralde mailan sekula eramana izan ez den politika publiko partekatua bat diseinatua izan da.

A- Egituratze ondoriotsua

1/ Funtsezko 4 erronken identifikazioa

Biarritzen, euskararen politika publikoak elkarren artean konektatuak diren 4 erronkari erantzuten die, eta hauek aldi berean mobilizatuak direnean, gurpil zuhur bat sortzen dute hiztunaren motibazioaren inguruan:

- 1) « Hitzun kopurua emendatu, hizkuntzaren **transmisioa, irakaskuntza eta ikaspena** sustatuz »
- 2) « **Erabilera** soziala garatu »
- 3) « Hizkuntzaren **erabilpena eta ikusgarritasuna** hobetu »
- 4) « **Prestigioa eta erakargarritasunean** ekin »





2/ 8 lan ardatzen inguruko artikulazioa

8 lan ardatz hedatuak dira, aitzin aipatu erronkei zuzenki erantzuteko eta ekintza aukera andana zabal baten gainean egituratzeko.



1. ardatza: **POLITIKA OROKORRA**

Euskara zeharkako moldean sarrarazi Hiriko politika orokorrean.



2. ardatza: **KOMUNIKAZIOA**

Euskararen erabilpena garatu Hiriko komunikazioan.



3. ardatza: **HIZKUNTZA PAISAIA**

Seinaletika elebiduna eta euskararen presentzia euskarrietan indartu.



4. ardatza: **FORMAKUNTZA PROFESIONALA**

Herriko langileak formakuntza desmartxa batean eta lan arloan erabilpena gara.



5. ardatza: **ERAGILEEN LAGUNTZA**

Eragileak lagundu euskara erabili eta hedatzeko duten gogoan.



6. ardatza: **HIZKUNTZA AKTIBITATEAK**

Hizkuntza ekintzak antolatu, operadore desberdinekin lankidetzan, praktikatzeko aukerak sortzeko gisan.



7. ardatza: **IRAKASKUNTZA – IKASPENA – LEHEN HAURTZAROA**

Hizkuntzaren irakaskuntza bultzatu haur eta helduei begira.



8. ardatza: **INFORMAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA**

Publikoari zuzendu dispositiboak apailatu eta hedatu.



3/ 3 dimentsiotako ekintza

3 esku hartze maila identifikatuak dira, bakoitzak eragile berezi batzuei dagokielarik.

BARNEKO MAILA BAT:

Euskara bere neurri publikoan eta zeharka sartu.

- Herriko zerbitzuak: Informazio-komunikazio poloak / Biztanleei zerbitzua-Hurbileko politika / Kultura-Animazioa-Gertakizunak / Heziketa-Gazteria-Kirola / Ekonomia-Saltegiak / Giza baliabideak / Finantzak / Hiriko ingurumena / Ondare teknikoa.
- Herriko orientazioen bitartekoak: Biarritz Événement, CCAS, Biarritz Tourisme, Biarritz Culture, Biarritz Océan, Atabal, Skate Park, etab.

KANPOKO MAILA BAT:


Eragileak lagungu eta bultzatu hizkuntzaren erabilpen desmartxa batean.

- Eskola publiko eta pribatuak: Ama eskolatik kolegiara.
- Elkarteen bizia: Euskara haien aktibitate guzietan edo haien zati baten erabiltzen duten euskararen garapenaren eragileak.
- Beste eragile pribatuak: Saltegiak, enpresak, ...
- Familiak.

MAILA OROKOR BAT:

EEP-ren dispositiboak herriaren mailan deklinatu.

- Guziak: Eskolak, AGAZ, Haurtzaindegia, Familiak ; operadore nagusiak...





B- BALIABIDE INDARTUAK

1/ Zinezko herriko zerbitzua

Politika publiko horren eramaiteko, jadanik zegoen Bulegoa **Euskararen herriko zerbitzu** batekin ordezkaturik izan da, honi eskumen zabalagoak eta baliabide azkarragoak emanak izan zaizkiolarik. Kultura Poloari loturik, euskara zerbitzuak ondoko zereginak bete behar ditu:

- Politika publikoa abian ezarri eta neurtu.
- Laguntza funtzio bat bete (zerbitzuak, eragileak...).
- EEP, beste lurralde eta hizkuntza operadoreekiko lotura azkartu.

2/ Giza baliabide egokituak

Euskarari eskaini ingeniari gaitasuna progresiboki langile batetik hirura emendaturik izanen da. **Euskarari eskaini Kontseiluko** baten agindupean ibiliko dira.

- **Zerbitzu burua:** koordinaketa orokorraz eta barne obratzeaz arduratzeko.
- **Misio karguduna:** Kanpoko animazio eta obratzeaz arduratzeko.
- **Itzultzaile-Interpretea/Argitalpen arduraduna:** Usaiako itzulpe-
nez, euskarriren apailatze eta hedapenez eta idazkaritzaz arduratzeko.

3/ Diru baliabide egokiak

Ibilmolde buxeta propioa esleitua zaio Euskara zerbitzuari, bere ekintzak eraman ditzan. Hiru aurrekontu lerro zehaztuak dira bertan, zerbitzu prestazio, formakuntza eta hornikuntzetarako.

Lerroen arteko sailkapena proiektuen arabera alda daiteke. Hizkuntza arloan ekiten duten elkarteei eman diru laguntzak ez dira aurrekontu horretan sartzen.



ARDATZ, ERRONKA, NEURRIEN AHOKATZE EZINHOBEA



POLITIKA OROKORRA

- Erronka nagusia : **Hizkuntzaren erabilpena eta ikusgarritasuna hobetu.**
- Instrukzio zerbitzuak: **Polo eta zerbitzu guziak.**
- Izaria: **Barnekoa.**
- Langilea: **Zerbitzu burua.**



KOMUNIKAZIOA

- Erronka nagusia : **Hizkuntzaren erabilpena eta ikusgarritasuna hobetu-Prestigioa eta erakargarritasuna sustatu.**
- Instrukzio zerbitzuak: **Informazioa, komunikazioa.**
- Izaria: **Barnekoa.**
- Langilea: **Zerbitzu burua.**



HIZKUNTZA PAISAIA

- Erronka nagusia : **Hizkuntzaren erabilpena eta ikusgarritasuna hobetu-Prestigioa eta erakargarritasuna sustatu.**
- Instrukzio zerbitzuak: **Informazioa, Eraikuntza, obrak, eremu publikoak**
- Izaria: **Barnekoa.**
- Langilea: **Zerbitzu burua.**



FORMAKUNTZA PROFESIONALA

- Erronka nagusia : **Hiztunen kopurua emendatu-Erabilpen soziala garatu.**
- Instrukzio zerbitzuak: **Giza baliabideak.**
- Izaria: **Barnekoa.**
- Langilea: **Zerbitzu burua.**



ERAGILEEI LAGUNTZA

- Erronka nagusia : **Hizkuntzaren erabilpena eta ikusgarritasuna hobetu-Erabilpen soziala garatu.**
- Instrukzio zerbitzuak: **Elkarte bizia, saltegiak, Kultura, Kirola.**
- Izaria: **Kanpokoak.**
- Langilea: **Misio karguduna.**



HIZKUNTZA AKTIBITATEAK

- Erronka nagusia : **Erabilpen soziala garatu-Prestigioa eta erakargarritasuna sustatu.**
- Instrukzio zerbitzuak: **Elkarte bizia, Irakaskuntza, Kultura, Kirola, Gazteria.**
- Izaria: **Kanpokoak.**
- Langilea: **Misio karguduna.**



IRAKASKUNTZA eta IKASPENA

- Erronka nagusia : **Hiztunen kopurua emendatu.**
- Instrukzio zerbitzuak: **Irakaskuntza, Elkarte bizia, CCAS.**
- Izaria: **Kanpokoak.**
- Langilea: **Misio karguduna.**



INFORMAZIOA & SENTIBERATZEA

- Erronka nagusia : **Prestigioa eta erakargarritasuna sustatu.**
- Instrukzio zerbitzuak: **Informazioa, Komunikazioa, irakaskuntza, gazteria.**
- Izaria: **Kanpokoak.**
- Langilea: **Itzultzaile argitalpen arduraduna.**



II) METODO ESPEZIFIKOA

A- Legezko koadroa

Gaur egun, hizkuntza politika bat sortu, zehaztu eta obratzeaz enkargatua den GIP bat sortu eta 10 urteren buruan eta nahiz eta gero eta kolektibitate gehiagok berpizte horren laguntzeko asmoa erakutsi, ez da oraindik legezko estatuturik euskarari dagokionez lurraldean.

Beharrezkoa da hori oroitaraztea azaltzeko administrazioek zailtasunak dituztela hizkuntza gaia aipatzen denean. Horrek ekarriko duen aldaketaz gain, usu legezkoatasun edo egingarritasun arazoek dute proiektuen obratzea tratatzen.

Biarritzen, euskararen politika 2015/07/23ko Herriko kontseiluan bozkatu eta biharamunean berean EEP-rekin izenpetu Hitzarmen batean oinarritzen da. Dokumentu horrek zehazten ditu hizkuntz politikaren norabideak dokumentu honetan aurkitu hitz berdinekin. Beste delibero batzuk hartuak izan daitezke proiektuen izaeraren arabera.

B- Partaidetzako ekintza

1/ Zeharkako obratzea:

Hizkuntza politika publikoaren apailatzea, obratzea eta ebaluaketa orokorra Herriko Euskara Zerbitzuaren gain gelditzen dira. Bizkitartean, herriko zerbitzu desberdinak (eta haietaz arduratzen diren hautetsiak) baitezpadako bitartekoak dira gai honi dagokionez, « euskara » izaria haien misioetan sar dezaten.

2/ Dispositiboen ko-eraikitzea:

Eraginkortasun hobea, osagarritasun handiagoa eta koherentzia onena lortzeko, EEP-ren hizkuntza politika proiektua erreferentzia bilakatu da Euskal Herri lurralde guzira. Proiektu batzuk denen artean eta moldean mutualizatuan eramanak izanen dira Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmena izenpetu duten lurraldeen artean.

3/ Ekintza bateratuak:

Molde berean, hizkuntzaren berreskuratzea maila desberdinetan eta eragile desberdinek (elkarte, eskola, pribatu,...) eramanik burutzen da. Denak osagarriak dira eta bakoitzak erronka bereziei erantzuten die. Lankidetzan burutzen dira bistan dena, bateratze eta elkarrenganako izpiritu batekin.



Hiriaren neurriko hizkuntza politika hau ausarta da, baina lehenik eta behin Biarritzeren beharrei erantzuten die. Hiria lurralde pilotu gisa kokatzeaz baino anitzez gehiago, **eraginkorak izateko baliabideak hartzea** da xedea.

Gainera, **EEP-ren parte hartzea gabe lor ez zitekeen indarra hartze hau**, arrunt egokitzen zaie azken honek egin gomendioei, Euskal Herria 2014-2020 kontratuaren baitan.

Baina 3. **belaunaldiko politika publiko** baten marrazteko orduan, pedagogia lan bat burutu behar da. Alabaina, usu ez ezaguna eta molde traketsean hartua den kontzeptu bat da. Haren berritasuna eta aldaketari uzkur den administrazio bati egiten dizkion galderengatik, hizkuntza politika azalpen lan baten ondorioz baizik ez da obratzen ahalko.

Desagertzera kondenatua den hizkuntza baten berpizte egitasmo honekin, ekintza publikoaren aspektu nobleenari, halabeharrari uko egitearena alegia, berriz ekiten diogu.



HIRUGARREN ZATIA

DESMARTXA PROSPEKTIBOA ETA IKUSMOLDE BERRIA



I) DESMARTXA ZORROTZA

A- Ikusmolde orokorra

1/ Epe luzerako ikuspegia

Hitzarmenaren iraupena gainditzen duen proiektu bat abian ezarriz eta epe luzerako ikuspegia hartuz, Biarritzek hizkuntza mailan lortu beharreko emaitzei eta horretara heltzeko baliabideei buruzko kurtsorea markatzen du.

Alde batetik, horrek epe laburreko proiektuen mailakatze bat ekartzen du, berehalako obratzearen ideiarekin: hizkuntza larritasuna eta jadanik kurritu bidea kontutan harturik, 2015-2020 garaia ekintzarena izanen da.

Baina beste aldetik, epemuga egoki batera proiektatzea da xedea, ekintzen ondorioak eta testuinguru soziolinguistikoaren bilakaera lurralde mailan neurtzeko gisan. Alabaina, hiztun galtze garrantzitsua iragarria da datozen urteetarako. Belaunaldi elebidun gazte batek ordaina ekartzea lehen mailako erronka izanen da, hemendik 2050era %30 euskaldunen muga kritikora heltzeko. Aitzin ikuspenak horretatik urrun dira.

2/ Ikuspegi orokorra

Hizkuntza politika biztanle guzietan zuzenduko zaie beraz: euskaldunei bezain bat (hiztun aktiboak, pasiboak edo ikasten ari direnak), euskaldunak ez direnei ere. Biarritz gisako herri batean, zati handi batean euskara mintzatzen ez duten %85ekin da berreskuratzea jokutzen.

Erabilpen esparruak azkartzearekin batean, euskararen destrendazkatzea lortzea bilatuko dugu. Eskuhartze arloak zabalduak izanen dira beraz, kultura bezain bat kirola, ekonomia, zientziak, elkarte bizia, garapen iraunkorra, soziala... hunkituz. Euskara horrela denentzat ikusgarria eta helgarria izanen da.

3/ Zerbitzu publiko ikuspegia

Ororen buru, helburua hemen **euskararen zerbitzu publiko berritzaile eta ausarta** sortzea da beraz. Laguntza beharrei erantzutera etorriko da, hauek adieraziak edo gordeak badira ere. Herriko zerbitzuaren zeregina beraz, aldaketa iraunkor bat bultzatzea izanen da erakundeetan (elkarte, saltegi, zerbitzu), automatizatzea bilatuz eta kidetze libreko printzipioa errespetatuz.

Hori dela eta, euskara kontutan hartzeak aldaketa sakona eskatzen die hunkitu eragileei. **Kalitatean, erreaktibitatean eta jarraipenean** oinarritzen den laguntza gakoa da aldaketa honek iraun dezan eta eragileen adostasuna pizteko.



B- Etengabeko jarraipena

1/ Elkarrizketa instantziak

Bi instantzia nagusik dute hizkuntza politikaren gidaritza ondorioetsua segurtatuko:

Gidaritza Batzordea: Erabakitze eta ebaluaketa instantzia.

- Osaketa: Hiria eta EEP-ko ordezkariak.
- Zeregina: Ekintzen bilana egin. Norabideak finkatu.

Euskararen herri batzordea: Elkar aditze instantzia.

- Osaketa: Elkarteak / Pertsona baliabideak / Langileak / Eragileak / Hautetsiak.
- Zeregina:
 - Egituren arteko lankidetzak bat sortu sarean ezartzearen bidez.
 - Herritarrak eta elkarrekin euskara politika publikoan sarrarazi.
 - Beharrak jakinarazi eta hautetsi eta hiriko langileen arteko elkarrizketa lagundu.

2/ Txostenak egin

Ebaluaketak erregularri burutuak izanen dira txosten batzuen bidez ekintzen eraginkortasuna, egokitasuna eta eragina neurtzeko gisan. Adierazle zehatz batzuetan oinarrituko dira (inkesta soziolinguistikoa, galdetegiak, hantatzea, langile kopuruak, ondorioak...).

Erreferentziako dokumentuak partekatuak izanen dira eta hauei esker lan ardatzak hobetu edo egokitzen ahalko dira.

3/ Helburu neurgarriak

Helburu zehatzak identifikatuak izanen dira, hizkuntza politikaren erronken arabera:

Irakaskuntzaz: eskolatzeko tasa, segipena bigarren mailan ...

Ikasketaz: lehen haurtzaroren harrera kolektiboa, norberak bere kabuz ikastea, langileen formakuntza...

Praktikaz: zerrendatu jarduera kopurua, betetze tasa ...

Erabilpenaz: seinaleak, euskarrietan agertzea, operadore lagunduen kopurua ...

Epera, EEP-ren laguntza dispositiboa ere sarraraz daiteke.

Honela osatua da:

Neurri sorta: euskara bertako paisaian agerrarazteko eta euskarazko zerbitzuetara heltzeko bidea garatzeko plantan ezarri behar diren ekintzak.

Hobekuntza kontratua: elkar adituz finkaturik, denboran aitzinatzeko aukera eskaintzen du kontratua urte batetik bestera eguneratuz.



II) PARADIGMA ALDAKETA

A- Nahikeria argia

Hizkuntza politikaren helburua ingurumena aldatzea da, epe luzera, gizarte elebidun bat osatzeko gisan. Kontserbazio ikuspuntu batetik berpizte ikuspuntu batera pasatu behar da beraz edo beste molde batez erranik « min eztigarri » logika batetik « suspertze » nahikeria batera.

Gogo hori gizartearen gehiengo batek partekatzen du, 2011ko inkesta soziolinguistikoan, **ikertuen %94 Euskal Herriaren etorkizuna lurralde elebidun gisa ikusten baitzuten.**

B- Diskurtso berria, praktika berriak

Aldaketa politika publiko oro bezala, hizkuntza politika denei zuzentzen zaie. Komeni da beraz « euskara » ekintza ez zaiela « euskaldunei » bakarrik zuzentzen, era berdinean ez dutela « euskaldunek » bakarrik eramanen. **Denei zuzendutako ekintza partekatu batek** ditu bakarrik emaitzak sortuko.

Euskararen berpizteari ekinez hemen, kultur aniztasuna bermatzen da munduan. Ikusmolde humanista eta unibertsal hau hizkuntza ekologikoaren teoriatik dator (hizkuntzen arteko parekotasuna, kultur aniztasuna, sozial ingurumena aintzat hartzea...). Diskurtso bat eraikia izanen da zentzu horretan aurkakotasunak irauten duen lekuan adostasuna sortzeko.

Beharrezkoa izanen da ere euskara gaketzen duten aurreiritziak desagerraraztea, haren alde urbanoa, modernoa, biltzailea, soziala, erakargarria... agerian emanez. Desafio honi eusteko arrazoi ugari eta anitzak badira: aldi berean hizkuntza, kultura, demokrazia, ekonomia, sozial... arlokoak.



Ekintza mailakatu bat da zabaldu behar beraz epe luzeko ikuspegi batekin eta helburu identifikatuekin.

Aldi berean, lerratze bikoitzari ekitea izanen da desafioa, 'berreskuratze' nahikeria batera pasatzea alde batetik, eta 'desafio kolektibo' batera beste aldetik.



KONKLUSIOA

Testuingurua eta pasiboa ikusirik, Biarritzek nahi izan du **zinezko botere handitze bat abian ezarri hizkuntza larritasunaren heineko politika publiko bat hedatuz**. Hizkuntza antolaketa arloko neurrietatik antolatua, planifikatua eta neurgarria den berreskuratze politika publiko batera pasatzean datza desafioa.

Bestalde, euskararen aldeko politika publikoak ez dezake osoki helburua lortuko hizkuntza ez bada erabilpen sektoretan garatzen. Hiztun osoen ekoizpen prozesuan, erabilpena ezinbesteko etapa bilakatzen da ikasketa prozesuan eta identifikazio fenomeno bati erantzuten dio (haurrari hizkuntza ikasi eta erabiltzeko gogoia ematen diona).

Etorkizunerako pario bat

Proiektua errealista eta koherentea da; bi printzipiotan datza: **politika publiko egituratua / baliabide egokiak**. Euskarak Biarritzen garatzen segitzeko berme bakarra da. Bestalde ere, hiriak lurralde mailan, baina ere nazio arte mailan duen jarrera hautuarekin arrunt egokia da.

Herritarraren bizia kudeatu eta hurbileko politika publiko bat garatzen duen lehen katebegi gisa, hiria lehen garrantzizko partaide bat bezala hartua da euskararen erabilpen politika horretarako. Horrela, herriko etxeek Euskararen erakunde publikoak obran ezarri hizkuntza politikaren funtsezko eragingarri batzuk eskuen artean dauzkate. Hiri bezala eta demografia aldetik dituen berezitasunei esker, Baiona-Angelu-Biarritz giltza lurralde bat da berreskuratze desafio horretan.

Beste alde batetik administrazioaren erabiltzaile berriak diren biarritar gazteen belaunaldia gero eta euskaldunagoa da. Gaurtik beretik da zerbitzu publikoa euskaraz eraiki behar. **Hautetsi bakoitzak, zerbitzu bakoitzak, operadore bakoitzak badu zeregina bat horretan.**

Elkarbizitza antolatu

Hiztunei euskara eremu publikoan erabiltzeko, belaunaldi gazteei zentzu ekarle den hizkuntza honetaz jabetzeko eta herritarrei erronkak ulertzeko parada eskainiz, hizkuntza politika baten xedea gure gizarteetan hain funtsezkoa den bizikidetzaren harmoniatsua bat antolatzea da.

Gauza anitz burutua izan da bi hamarkadatan, zati batean hizkuntzaren apaltzea oztopatzeko. Nahiz eta hau ez aski izan, horrek frogatzen du **borondate politikoa eta baliabide egokiekin, ekintza publikoak duela bi hamarkada saihestezina zirudien prozesu bat alderantzikatzen ahal duela.**